



Oinarriak
arte plastiko eta ikusizkoak
diru-laguntzen programa

II
Huarte



1 Deialdiaren ildo orokorrak

A

Helburua

Artista nafarren ikerketa, artelan-ekoizpena, sorkuntza-lana eta hedapena, proiektzioa eta finkapena sustatzea, sortzaileei arte-proiektuen ekoizpenean eta argitalpenean lagunduta.

B

Xedea

Arte Garaikideko Uharte Zentroak arte plastiko eta ikusizkoetarako diru-laguntzen programa abiarazi du, arte-ikerketa arloko proiektu berriak ontzeko, arte plastikoen eta ikusizkoen arloan: hau da, pinturan, eskulturan, marrazkian, grabatuan, argazkian, performancean, teknologia berrietan, bideo-sorkuntzan, prozedura mistoetan edota arte plastikoetako beste edozein modalitatetan.

Norentzat

Proiektuak Nafarroan jaio edo bizi diren artistek egin beharko dituzte, eta banakakoak edo taldekakoak izan daitezke.

Deialdi honetan diru-laguntza lortzen duten eskatzaileek ezin izanen dute laguntzarik eskatu modalitate berean, xede berarekin datozen bost urtean onesten diren deialdietan.

Nafarroako Gobernuak arte plastikoetarako 2013, 2014, 2015 eta 2016ko deialdietan emandako diru-laguntzen onuradunek ezin izanen dute laguntzarik jaso ekoizpen modalitatean.

Noiz

Proiektuak 2017. urtean egin beharko dira (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra).

Modalitateak

Bi modalitate dira:

- **Ekoizpenerako diru-laguntzak:** proiektuak egitea sorkuntza-ekoizpen plastiko eta ikusizkoaren arloan: artelanak eta ikerketa ekoiztea.
- **Argitalpenerako diru-laguntzak:** argitalpenak euskarri ezberdinetan egitea, arte garaikideko artistak eta formatu editorial bat behar duten arte-proiektuak hedatze eta sustatze aldera.

Proiektu bakar bat onartuko da eskatzaile bakoitzeko, modalitate bakoitzean. Eskatzaile berberak ezin izanen du modalitate bakoitzeko laguntza jaso, urte berean.

Modalitate bakoitzera bideratu diren diruak modalitate bakoitzean baloratzen diren eskaeren artean banatuko dira, ezarritako prozedurarekin eta irizpideekin bat. Baina, modalitate batera bideratutako diruak agortzen ez badira, eskaerarik aurkeztu ez delako, edo betebeharrak bete ez direlako, edo Balorazio Batzordearen iritziz, eskaerek ez dutelako behar bezalako kalitaterik edo bideragarritasunik, diruak berriz eskeitzen ahalko dira eta beste modalitateari esleitutako dirutzari erantsi.



C

Beste diru-laguntza batzuk jasotzea eta haiekiko bateragarritasuna

Uharte Zentroaren diru-laguntzarekin batera, helburu bera duten beste diru-laguntza, beka edo laguntza batzuk jaso daitezke, entitate publikoek, pribatuek edo partikularrek emandakoak. Nolanahi ere, haien guztien zenbatekoa ezin da inola ere izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

D

Oinarriak onartzea

Eskaeren aurkezpenak berarekin dakar deialdi honen oinarrietan ezarritako baldintzak espresuki eta formalki onartzea.



2 Ekoizpenerako diru-laguntzak

A

Zenbatekoa

60.0000 euro ezarri dira 5 edo laguntza gehiagotarako artea ekoizteko proiektuentzat; gehienez 12.000 euro. Muga ekonomikoaren baldintza hori beteta, proiektu bakoitzerako zenbat eskatzen den, horrenbestekoa izanen da laguntza.

Onuradunen batek uko egiten badio laguntzari, puntuazioaren hurrenkeran hurrengo den eskatzaileari emanen zaio, deialdian eskatutako gutxienekoa gainditzen badu, betiere.

Laguntza jasotzen ahal duen azken proiektuari ezin bazaio diru-laguntzarik handiena eman, behar adina dirurik ez dagoelako, diru-laguntza soilik emanen zaio, baldin eta ematen ahal zaion zenbatekoak proiektuaren bideragarritasuna ziurtatzen badu (Ebaluazio Batzordearen iritziz), eta baldin eta onuradunak onartzen badu eskaintzen zaion diru-kopurura doitzea bere proiektua. Hori dela-eta, ez bada esleitzen modalitate honetarako dagoen kopuru osoa, soberan dagoen dirua argitalpeneko modalitatara bideratutako diruari eransten ahalko zaio.

• Finantzatzen ahal diren gastuak

Finantzatzen ahal diren gastuak dira diruz lagundutako proiektua gauzatzeko behar-beharrezkoak diren gastuak eta deialdi honetan ezarritako epean egiten direnak. Aipatu gastuen kostua ez da inola ere izanen merkatuko balioa baino handiagoa.

- Proiektua ekoizteko behar diren materialak eta tresnak erostea.
- Onuradunaren joan-etorriak, ostatua eta garraioa, proiektuarekin zuzeneko lotura dutenak. Behar-beharrezko kostuak izanen dira proiektua gauzatzeko, eta hortaz, proiektua gauzatzeko epealdian egin beharko dira, txostenean adierazi eta aurrekontuan zehaztuko dira. Ez dira aintzat hartuko ohiko joan-etorrietatik edo joan-etorri arruntetatik datozen gastuak, ezta dieta-gastuak ere.
- Proiektuko ekintzak egiteko behar diren zerbitzuak, kanpoaldeko bitartekoak, ekipoak, bitarteko materialak eta beste kontratatzea.
- Egitura-kostuak, hala nola estudio edo lokal bat alokatzea, betiere egokia bada eta proiektua garatzeko justifikatua badago. Ez dira aintzat hartuko artistaren ohiko estudioa mantentzeko gastuak.
- Artisten ordainsariak, sorkuntzarako egindako lanaren ordainez. Ez du gaindituko proiektuaren kostu osoaren % 25.

Ekipamenduko ondasun inbentariagarriei dagokienez (ekipamendu ez suntsikorra), diruz laguntzeko moduko gastua gehienez laguntzaren zenbateko guztiaren % 10 izanen da.

• Gastu hauetarako ez da diru-laguntzarik emanen:

- Ondasun higigarrien eta azpiegituren erosketarekin, erabilerarekin eta finantzaketarekin lotuta dauden guztiak, salbu eta aurreko puntuan ekipamenduko gastu inbentariagarrietarako ezarritakoa, betiere diru-laguntzaren xede den proiektua praktikan jartze aldera.
- Proiektua garatzeko guztiz beharrezkoak ez diren gastuak, edo zenbatekoa modu fidagarrian zehaztu gabe dutenak.
- Erakusketak eta katalogoak ekoizteko gastuak.



B

Eskaerak

Baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak (epeak ez betetzeagatik, behar adina daturik edo agiririk ez emateagatik) ez dira onartuko.

- **Aurkezpen epea**

Eskaerak eta beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko epea 2017ko apirilaren 6eko 14:00ak arte izanen da.

- **Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Oinarriotako I. Eranskinean dagoen ereduari jarraiki aurkeztuko dira eskaerak, eta honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- NANaren fotokopia edo Nafarroan 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen erroldatua egotearen ziurtagiria.
- Izena emateko fitxa behar bezala bete.
- Proiektuaren azalpen txostena, honakoak barnebilduta: laburpena, planteamendu teorikoa, gauzapena, irudiak eta/edo zirriborroak, lanerako plana eta aurrekontua.
- Curriculum, deialdiaren xede den esparruan egindako ibilbide akademiko eta profesionalarekin (taldeak - Aldez aurretik egindako lanen gaineko txostena.

- **Aurkezteko modua**

Dokumentazio guztia formatu digitalean aurkeztuko da, PDF artxibo bakarrean, honela izendatuta: IZENA_ABIZENAK_EKOIZPEN_LAGUNTZAK.PDF. Artxiboa actividades@centrohuarte.es helbidera bidali beharko da. Bide beretik, artxiboa jaso izanaren ziurtagiria igorriko da.

C

Aukeraketa

- **Ebaluazio Batzordea**

Hona Ebaluazio Batzordeko kideak:

- Fernando Pérez Gómez, Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendari Nagusia.
- Miren Jaio, kritikaria eta ikertzailea.
- Juan Pablo Huércanos, Oteiza Museoko zuzendariordea.
- Ioar Cabodevilla, arkitektoa eta Nafarroako Kultura Kontseiluko kidea.
- Xabier Idoate, artista plastikoa eta AGUZaren Patronatuko kidea.
- Oskia Ugarte, Uharte Zentroko zuzendaria idazkaria izanen da; hizpidea du baina botorik ez.

- **Balorazio-prozedura**

1. Uharte Zentroak eskaeraren lehen berrikuspen teknikoa egingen du, guztiek ere deialdiaren oinarriak betetzen dituztela ziurtatzeko. Ez dira onartuko baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak.
2. Ebaluazio Batzordeko kideek proiektu onartuak jaso eta baloratuko dituzte, zeinek bere aldetik eta banaka-banaka.

3. Ebaluazio Batzordeak puntuazioa bateratzeko bildu eta gero, azken puntuazioa proposatuko du. Behin onartutako aurrekontuak ezarririk eta proiektu guztien bideragarritasuna segurtaturik, Ebaluazio Batzordeak diru-laguntzak banatuko ditu balorazio handiena izan duten proiektuen artean. Prozesuko edozein unetan, informazio osagarria eskatzen ahalko zaie eskatzaileei. Azkenik, irizpen loteslea emanen du.

• **Balorazio-irizpideak**

Aurkeztutako dokumentuek deialdian erantsitako ereduaren arabekoak izan beharko dute.

• **Irizpide hauek erabiliz baloratuko dira proiektuak:**

1. Proiektuaren kalitate artistikoa (70 puntu).

- Proiektuaren garrantzia, interesa, eta ideia kontzeptualaren eta hura garatzeko proposamenaren arteko koherentzia (45 puntu).
- Lagungarriak izatea arte-sorkuntzaren esparrua berritzeko (15 puntu).
- Proiektuaren aurkezpena eta formulazioa (10 puntu).

2. Artistak deialdiaren xede den esparruan egindako ibilbidea (20 puntu).

3. Proiektuaren bideragarritasuna eta aurrekontuaren egokitasuna (10 puntu).

Aurreko irizpide horiek aplikatuta, 100 puntu gehienez emanen zaizkio proiektu bakoitzari, eta ez dira aintzat hartuko gutxienez ere 50 puntura iristen ez diren proiektuak. "Proiektuaren kalitate artistikoa" ataleko puntuazioaren erdia lortzen ez duten proiektuak ez dira kontuan hartuko.

D

Proiektuen jarraipena egitea

Uharte Zentroak proiektuen eta artisten jarraipena egingen du: jarraipena ezberdina izanen da, proposamenak zein diren, baina aholkularitza, laguntza teknikoa, kontaktuak edo beste edozein moldetako izaten ahalko da, betiere Uharte Zentroaren eskura badago.

• **Egonaldia Uharte Zentroan**

Artista onuradunek Uharte Zentroaren instalazioak erabiltzen ahalko dituzte, eta lanerako leku bat izanen dute eskura urte osorako Zentroan, eta bertako baliabideak eta ekipamenduak ere erabiltzen ahalko dituzte.

• **Proiektuen aurkezpena**

2018ko lehen hiruhilekoan, proiektu guztiak batera aurkeztuko dira *Habitación* programaren baitan.

• **Banakako erakustaldia**

Uharte Zentroak artistak gidatu eta laguntza emanen die bakoitzak bere lanaren aurkezpena egin ahal izan dezan omen handiko erakunde batean, Nafarroan edo kanpoan, 2018an edo 2019an.

E

Onuradunen betebeharrak

Deialdi honen barrenean diruz laguntzen den proiekturako soilik erabiltzea laguntza

- Uharte Zentroan justifikatu beharko da diruz lagundutako proiektua gauzatu dela eta zer gastu egin den. Proiektua bukatutzat jotzeko, aurkezteko moduan egon beharko du.
- Proiektua gauzatea deialdian aurkeztutakoarekin bat. Hala ere, aldaketak egiten ahalko dira, baldin eta aldaketa nabarmenik eragiten ez badute, eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoari eragiten ez badiote.
- Proiektua 2018an aurkeztea Uharte Zentroan gainerako proiektu onuradunekin batera, Uharte Zentroak esandako egunetan eta baldintzetan.



- Laguntzaren xede den proiektua finantzatzaren beste diru-laguntzen, laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen berri ematea Uharteko Zentroari.
- Uharteko Zentroari uneoro ematea proiektuaren gauzapena egiaztatzeko aukera.
- Azken txostena aurkeztea, honakoa barnebiduta: proiektuaren gauzapenaren justifikazioa, bai eta emaitzak, garapena eta ebaluazioa ere. Txostenean jaso behar da proiektuaren alderdi guztiak bete egin direla, deialdian aurkeztutako proposamenean bildutakoarekin bat.
- Jasotako diruaren aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izan daitezkeelako.
- Laguntza jasotzen duten proiektuak onuradunaren eta Uharteko Zentroaren artean elkarlanean egindako proiektutzat joko dira. Bi aldeek proiektuak hedatzeko ekintzak egin ditzakete, aurrez hitzartutakoak. Nolanahi ere, aipatu elkarlana adieraziko da beti, bai edonolako material inprimatuetan, bai zuzeneko edozein komunikazio-ekintzatan. Horretarako, Uharteko Zentroaren eta Nafarroako Gobernuaren logotipoak agertu behar dira, proiektutik eratortzen den argitalpen orotan. Uharteko Zentroak logotipoak ongi jarri ote diren baimendu behar dira.

F

Ordainketa, eta huraxe frogatzeko modua.

• Ordainketa-prozedura

Laguntzen ordainketa hiru tartetan egingen da:

1. Laguntza onartu ondoren, proiektuaren aurrekontuaren % 50 aurreratuko da.
2. Urriaren 15era arte, onuradunak ordura arte egin dituzten gastuak justifikatzen ahalko dituzte. Justifikazioaren ondotik, gehienez ere % 25 gehiago ordainduko zaie.
3. Gainerako % 25 urtea bukatu ondoren ordainduko da, justifikazio-txostena aurkeztu eta gero.

• Justifikatzeko modua

Laguntzaren azken tartea ordainduko da, honako frogagiri hauek aurkeztu eta gero. Frogagiriak 2017ko abenduaren 28ra arte aurkezten ahalko dira.

- Egindako jardueraren txosten teknikoa, emaitzak, garapena eta ebaluazioa barne. Txostenean jaso behar da proiektuaren alderdi guztiak bete egin direla, deialdian aurkeztutako proposamenean bildutakoarekin bat.

- Egindako jardueraren kostua frogatzen duen txosten ekonomikoa, gastuen zerrenda barne, onuradunari emanen zaien ereduaren arabera. Faktura bakoitzaren enpresa, eguna, zenbatekoa eta zenbakia adierazi behar dira.

- Onartutako proiektua gauzatzeko egin diren gastuen frogagiriak.

Fakturak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera jaulki behar dira, eta Fakturazio Betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua onesten duen apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuari jarraikiz eginak. Ez da onartuko ez ordainagiririk, ez aurrekonturik eta ez albaranik.

- Proiektuaren gastuekin lotutako ordainketen banku-ziurtagiriak.

3 Argitalpenerako diru-laguntzak

A

Zenbatekoa

24.900 euro ezarri dira 3 edo laguntza gehiagotarako argitalpen-proiektuentzat; gehienez 8.300 euro.

Muga ekonomikoaren baldintza hori beteta, proiektu bakoitzerako zenbat eskatzen den, horrenbestekoa izanen da laguntza.

Onuradunen batek uko egiten badio laguntzari, puntuazioaren hurrenkeran hurrengoia den eskatzaileari emanen zaio, deialdian eskatutako gutxienekoa gainditzen badu, betiere.

Laguntza jasotzen ahal duen azken proiektuari ezin bazaio diru-laguntzarik handiena eman, behar adina dirurik ez dagoelako, diru-laguntza soilik emanen zaio, baldin eta ematen ahal zaion zenbatekoak proiektuaren bideragarritasuna ziurtatzen badu (Ebaluazio Batzordearen iritziz), eta baldin eta onuradunak onartzen badu eskaintzen zaion diru-kopurura doitzea bere proiektua. Hori dela-eta, ez bada esleitzen modalitate honetarako dagoen kopuru osoa, soberan dagoen dirua argitalpeneko modalitatara bideratutako diruari eransten ahalko zaio.

• Finantzatzen ahal diren gastuak

Finantzatzen ahal diren gastuak dira argitalpenarekin eta edizioarekin lotura zuzena dutenak, eta deialdi honetan ezarritako epean egiten direnak. Aipatu gastuen kostua ez da inola ere izanen merkatuko balioa baino handiagoa.

- Diseinu grafikoaren kostuak, materiala landu eta prestatzeko kostuak.
- Beste egileen ordainsariak (kolaboratzaileak, argazkia, testuak...).
- Itzulpenak.
- ISBN, edizioa-inprimaketa.
- Hedapena.

• Gastu hauetarako ez da diru-laguntzarik emanen:

- Jarduera kudeatzeari eta koordinatzeari lotutako gastuak, lana ekoizteko kostuak eta artistaren ordainsariak, eta era berean, dieta-gastuak, joan-etorrikoak eta beste gastu arrunt batzuk.
- Proiektua gauzatzeko guttiz beharrezkoak ez diren gastuak, edo zenbatekoa modu fidagarrian zehaztu gabe dutenak.

B

Eskaerak

Baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak (epeak ez betetzeagatik, behar adina daturik edo agiririk ez emateagatik) ez dira onartuko.

• Aurkezpen epea

Eskaerak eta beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko epea 2017ko apirilaren 6eko 14:00ak arte izanen da.

• Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Oinarriotako II. Eranskinean dagoen ereduari jarraiki aurkeztuko dira eskaerak, eta honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:



- NANaren fotokopia edo Nafarroan 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen erroldatua egotearen ziurtagiria.
- Izena emateko fitxa behar bezala bete.
- Proiektua azaltzeko txostena, honakoa barnebidatuta: laburpena, proposamena, kolaboratzaileak (halakorik bada: testuak, diseinua...), lanerako plana, aurrekontua, eta banaketa-plana, zenbat ale proposatu diren, jendeari saltzeko prezioa, eta argitaletxea (ez bada autoedizioa).
- Argitalpenaren behin-behineko maketa.
- Curriculum, deialdiaren xede den esparruan egindako ibilbide akademiko eta profesionalarekin (taldeak izatekotan, kide guztien curriculum aurkeztuko da).
- Aldez aurretik egindako lanen gaineko txostena.

• **Aurkezteko modua**

Dokumentazio guztia formatu digitalean aurkeztuko da, PDF artxibo bakarrean, honela izendatuta: IZENA_ABIZENAK_ARGITALPEN_LAGUNTZAK.PDF. Artxiboa actividades@centrohuarte.es helbidera bidali beharko da. Bide beretik, artxiboa jaso izanaren ziurtagiria igorriko da.

C

Aukeraketa

• **Ebaluazio Batzordea**

Hona Ebaluazio Batzordeko kideak:

- Fernando Pérez Gómez, Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendari Nagusia.
- Miren Jaio, kritikaria eta ikertzailea.
- Juan Pablo Huércanos, Oteiza Museoko zuzendariordea.
- Ioar Cabodevilla, arkitektoa eta Nafarroako Kultura Kontseiluko kidea.
- Xabier Idoate, artista plastikoa eta Uharte Zentroaren Patronatuko kidea.
- Oskia Ugarte, Uharte Zentroko zuzendaria idazkaria izanen da; hizpidea du baina botorik ez.

• **Balorazio-prozedura**

1. Uharte Zentroak eskaeren lehen berrikuspen teknikoa egingen du, guztiek ere deialdiaren oinarriak betetzen dituztela ziurtatzeko. Ez dira onartuko baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak.

2. Ebaluazio Batzordeko kideek proiektu onartuak jaso eta baloratuko dituzte, zeinek bere aldetik eta banaka-banaka.

3. Ebaluazio Batzordeak puntuazioa bateratzeko bildu eta gero, azken puntuazioa proposatuko du.

Behin onartutako aurrekontuak ezarri eta proiektu guztien bideragarritasuna segurtaturik, Ebaluazio Batzordeak diru-laguntzak banatuko ditu balorazio handiena izan duten proiektuen artean.

Prozesuko edozein unetan, informazio osagarria eskatzen ahalko zaie eskatzaileei.

Azkenik, irizpen loteslea emanen du.

• **Balorazio-irizpideak**

Aurkeztutako dokumentuek deialdian erantsitako ereduaren arabera izan beharko dute.

Irizpide hauek erabiliz baloratuko dira proiektuak:

1. Argitalpenaren interesa eta koherentzia (70 puntu).

Argitalpenaren garapena. Egitura, diseinua, koherentzia edukiaren eta proposatutako kolaborazioen artean (50 puntu).

Proiektuaren garrantzia, interes maila, eta lagungarriak izatea arte-sorkuntzaren esparrua eta eskatzailearen ibilbidea berritzeko (15 puntu).

Proiektuaren aurkezpena eta formulazioa (5 puntu).

2. Artistak deialdiaren xede den esparruan egindako ibilbidea (20 puntu).

3. Banaketa-plana eta aurrekontuaren egokitasuna (10 puntu).



4. Euskarak proiektuan tokia izatea (5 puntu). Irizpide hau ez da aplikatuko, ezein hizkuntzarik aurreikusten ez duten proiektuen balorazioan; horietarako, atal honetan aurreikusitako portzentajea 1. atalaren portzentaje osoari erantsiko zaio.

Aurreko irizpide horiek aplikatuta, 100 puntu gehienez emanen zaizkio proiektu bakoitzari, eta ez dira aintzat hartuko gutxienez ere 50 puntura iristen ez diren proiektuak. "Argitalpenaren interesa eta koherentzia" ataleko puntuazioaren erdia lortzen ez duten proiektuak ere ez dira onartuko.

• **Komunikazioa**

Zer onuradun aukeratu den interesdunei beraiei jakinaraziko zaie, eta Uharte Zentroaren webean argitaratuko da.

D

Proiektuen jarraipena egitea

Uharte Zentroak, ahal duen neurrian, proiektuen eta artisten jarraipena egingen du: jarraipena ezberdina izanen da, proposamenak zein diren, baina aholkularitza, laguntza teknikoa, kontaktuak edo beste edozein moldetako izaten ahalko da, betiere Uharte Zentroaren eskura badago

• **Argitalpenen aurkezpena**

2018ko lehen hiruhilekoan argitalpen guztiak batera aurkeztuko dira, Uharte Zentroaren programazioaren baitan. Artistekin ados jarri ondoren, Uharte Zentroa lankidetzan aritzen ahalko da argitalpena beste leku batzuetan aurkezteko.

E

Onuradunen betebeharrak

- Deialdi honen barrenean diruz laguntzen den proiekturako soilik erabiltzea laguntza
- Uharte Zentroan justifikatu beharko da diruz lagundutako proiektua gauzatu dela eta zer gastu egin den. Proiektua bukatutzat jotzeko, argitaratua egon behar da.
- Proiektua gauzatzea deialdian aurkeztutakoarekin bat. Hala ere, aldaketak egiten ahalko dira, baldin eta aldaketa nabarmenik eragiten ez badute, eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoari eragiten ez badiote.
- Argitalpena 2018an aurkeztea Uharte Zentroan gainerako argitalpen onuradunekin batera, Zentroak esandako egunetan eta baldintzetan.
- Argitalpena Uharte Zentroak finantzatu duela adierazi beharko da argitalpenean, ageriko leku batean. Horretarako, Uharte Zentroaren eta Nafarroako Gobernuaren logotipoak agertu beharko du. Uharte Zentroak logotipoak ongi jarri ote diren baimendu beharko du.
- Laguntzaren xede den argitalpena finantzatzen duten beste diru-laguntzen, laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen berri ematea Uharte Zentroari.
- Uharte Zentroari uneoro ematea argitalpenaren garapena egiaztatzeko aukera.
- Gutxienez 20 argitalpen-ale lagatzea Uharte Zentroari, argitalpen inprimatua bada.
- Azken txostena aurkeztea, proiektuaren gauzapenaren justifikazioa bilduta.
- Jasotako diruaren aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izan daitezkeelako.

Laguntza jasotzen duten argitalpenak onuradunaren eta Uharte Zentroaren artean elkarlanean egindakotzat joko dira. Bi aldeek proiektuak hedatzeko ekintzak egin ditzakete, aurrez hitzartutakoak. Nolanahi ere, beti aipatu elkarlana adieraziko da, bai edonolako material inprimatuetan, bai zuzeneko edozein komunikazio-ekintzatan.



F

Ordainketa, eta huraxe frogatzeko modua

• Ordainketa-prozedura

Laguntzen ordainketa hiru tartetan egingen da:

4. Laguntza onartu ondoren, proiektuaren aurrekontuaren % 50 aurreratuko da.
5. Urriaren 15era arte, onuradunek ordura arte egin dituzten gastuak justifikatzen ahalko dituzte. Justifikazioaren ondotik, gehienez ere % 25 gehiago ordainduko zaie.
6. Gainerako % 25 urtea bukatu ondoren ordainduko da, justifikazio-txostena aurkeztu eta gero.

• Justifikatzeko modua

Laguntzaren azken tarte ordainduko da, honako frogagiri hauek aurkeztu eta gero. Frogagiriak 2017ko abenduaren 28ra arte aurkezten ahalko dira.

- Egindako jardueraren txosten teknikoa, emaitzak, garapena eta ebaluazioa barne. Txostenean jaso beharko da proiektuaren alderdi guztiak bete egin direla, deialdian aurkeztutako proposamenean bildutakoarekin bat.

- Egindako jardueren kostua frogatzen duen txosten ekonomikoa, gastuen zerrenda barne, onuradunei emanen zaien ereduaren arabera. Faktura bakoitzaren enpresa, eguna, zenbatekoa eta zenbakia adierazi beharko dira.

- Onartutako proiektua gauzatzeko egin diren gastuen frogagiriak.

Fakturak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera jaulki beharko dira, eta Fakturazio Betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua onesten duen apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuari jarraikiz eginak. Ez da onartuko ez ordainagiririk, ez aurrekonturik eta ez albaranik. Ez dira onartuko baldintza horiek betetzen ez dituzten fakturak.

- Artistaren ordainsari gastuak inputatzen badira, kontzeptu horrengatik proiektuari eskainitako egun kopurua frogatzen duen erantzukizunpeko adierazpena.

- Proiektuaren gastuekin lotutako ordainketen banku-ziurtagiriak.

Ezarritako epean justifikatu ezean, justifikatu gabeko gastuak eta ordainketak kobratzeko eskubidea galduko da.

Diruz lagundutako proiektuaren gastu guztia justifikatu beharko da. Egindako gastutzat hartuko da ordaindu izanaren ziurtagiria daukana. 100 eurotik gorako ordainketa guztiak bankuko transferentziaren edo txartelaren bidez egingen dira. Hartu-agiriak ez dira onartuko.

